

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

ernai	«Azkarra eta ernaia zen bizitzako gauzetan, baina gauzetan bakarrik, eta ez esanahietan.»
zartailu	«Bata bestearen menpeko zen, eta noizbait hartu zituen laztan bakarrak, zartailuaren laztanak izan ziren...»
barrena	«...ekialdera bidezidor lauso eta ibil-bakan bat luzatzen baitzen, izei lodien baso-eremuan barrena .»
txinpartaka	«Hantxe zegoen sua, txartaka eta txinpartaka eta bizi-aldarrika gar dantzari bakoitzarekin.»
urmahel	«Tranpa hutsak ziren. Elurpean urmahelak ezkututzen zituzten...»
arritzu	«...bere buruaren onuragatik gutzizatzen zuen sutondora itzultzea. Baina gizonak arritzuaren eta zartailuaren hotsarekin hitz egin zion...»
goibeltasun	«...hala ere, bazirudien halako gandu azal bat ageri zela gauzen gainean, goibeltasun mehe bat, eguna ilunarazten zuena, eta eguzki ezaren kariaz zen.»
narrabide	« Narrabide zaharraren ildo ageri-agerian zegoen, baina dozena bat ontzako elurrak estaltzen zituen azken trineoaren arrastoak.»
lehiatsu	«...buztana aurreko hanken gainean kiribildu eta gizonaren aurrean eseri zen, buruz buru, harrigarriro lehiatsu eta arretatsu.»
ernatu	«Baina eskuetara ez zitzaion sentsaziorik ernatu .»
hozmindu	«Gorputz adarrek sentitu zuten lehenik haren gabezia. Oin bustiak hozmindu zitzaizkion arinen...»
barrundatu	«Zerbait gertatzen zen, eta zakurraren sen irudikorrek arriskua barrundatu zuen...»
lahar	«...milia batzuk ibili, laharrez jositako zelaiune zabal bat zeharkatu eta munto batean behera eginez, hormatutako erreka baten arroraino jaitsi zen.»
apailatu	«Etsi zuen masailak izoztuta zeuzkala; hori bazekien, eta damu mina zuen sudur estalgarri bat apailatu ez izana...»
fardel	«Hamaiketakoari dagokionez, zamarra azpiko fardelaren konkorra haztatu zuen.»
zeruertz	«...haren esfera gozagarria, hegoaldera bidean, zeruertzaren gainetik ozta-ozta azaltzeko eta berehala begibistatik desagertzeko.»
lertxun	«...gauzak atzera ikusten hasi zen: erreka ezpondak, egur pila zaharrak, lertxun biluziak, eta zerua.»
egundaino	«Aldian behin gogora etortzen zitzaion hozt handia zegoela eta halako hotzik egundaino ezagutu gabea zela.»
oinkatu	«Piska batean hausnartu zuen, masailak eta sudurra igurtziz, eta gero ezkerretara saihestu zen, poliki-poliki oinkatuz eta urrats bakoitzean oreka neurtuz.»
eskuarki	« Eskuarki , estalitako urmahelen gaineko elurrak bazuen halako itxura hondartu, azukreztatu bat, arriskuaren berri ematen ziena.»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

oinbete	«Yukon ibaia milia bat zabal hedatzen zen, ur hormatuak hiru oinbetez estalita.»
ezponda	«...gauzak atzera ikusten hasi zen: errekaen ezpondak , egur pila zaharrak, lertxun biluziak, eta zerua.»
munto	«...milia batzuk ibili, laharrez jositako zelaiune zabal bat zeharkatu eta munto batean behera eginez, hormatutako erreka baten aroraino jaitsi zen.»
morrale	«...jelazko morraleak hain irmoki eusten zien ezpainei, zukua botatzerakoan ezin baitzuen kokotsa garbitu.»
mainatu	«Artaz eta esku baldarrez mainatu zuen sugarra. Bizia esan nahi zuen eta ez zen iraungi behar.»
gorputz adarrak	« Gorputz adarrek sentitu zuten lehenik haren gabezia. Oin bustiak hozmindu zitzaizkion arinen...»
gandu	«...hala ere bazirudien halako gandu azal bat ageri zela gauzen gainean, goibeltasun mehe bat, eguna ilunarazten zuena, eta eguzki ezaren kariaz zen.»
errezel	«...goxo-goxo etzan eta hodeizko errezel batek kanpoko espazioaren bisaia estali arte, bertan egoteko modukoa...»
erantzi	«Su egiteko eskularruak erantzi behar izan zituen, eta hatzak berehala zurrundu zitzaizkion.»
kariaz	«...hala ere bazirudien halako gandu azal bat ageri zela gauzen gainean, goibeltasun mehe bat, eguna ilunarazten zuena, eta eguzki ezaren kariaz zen.»
jalki	«Sastraka azpitik, bertan lehengo udaberriko uholdeak jalkitako adaxka iharrezko hornidura bat baitzegoen, erreka eskuratu zuen.»
hormatu	«Yukon ibaia milia bat zabal hedatzen zen, ur hormatuak hiru oinbetez estalita.»
irudikor	«Zerbait gertatzen zen, eta zakurraren sen irudikorrak arriskua barrundatu zuen...»
sen	« Senak kontseilu hobea ematen zion zakurrari, gizonari zentzuak ematen ziona baino.»
bisaia	«...goxo-goxo etzan eta hodeizko errezel batek kanpoko espazioaren bisaia estali arte, bertan egoteko modukoa...»
arro	«...milia batzuk ibili, laharrez jositako zelaiune zabal bat zeharkatu eta munto batean behera eginez, hormatutako erreka baten aroraino jaitsi zen.»
orpoz orpo	«Gizonari orpoz orpo zakur bat zerraion trostaz, bertako husky handi bat...»
hondartu	«Eskuarki, estalitako urmahelen gaineko elurrak bazuen halako itxura hondartu , azukreztatu bat, arriskuaren berri ematen ziena.»
gorpu	«...jelatzea oso errotuta zeukala eta laster gorpu gogor geratuko zela.»
ihar	«Sastraka azpitik, bertan lehengo udaberriko uholdeak jalkitako adaxka iharrezko hornidura bat baitzegoen, erreka eskuratu zuen.»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

zurrundu	«Benetan hotz zegoen, deliberatu zuen, zurrundutako sudurra eta masailak eskula- rruetan igurzten zituen bitartean.»
hausnartu	«Piska batean hausnartu zuen, masailak eta sudurra igurtziz, gero ezkerretara saihestu zen, poliki-poliki oinkatuz eta urrats bakoitzean oreka neurtuz.»
intzigar	«Arnasaren hezetasun jelatuak intzigar hauts fina zerion zakurrari ilean hedatua...»
trostaz	«Gizonari orpoz orpo zakur bat zerraion trostaz , bertako husky handi bat...»
murduskatu	«—Zuzen hengoen bai, axeri zahar hori, zuzen hengoen! — murduskatu zion gizonak Sulfuro erreko beteranoari.»
esku-mami	«Pospolo sorta esku artean behin eta berriz erabili ondoren, jantzitako esku-mamien artean heltzea lortu zuen.»
haztatu	«Hamaiketakoari dagokionez, zamarra azpiko fardelaren konkorra haztatu zuen.»
hegi	«Eguargia hotz eta gris urratu zuen, izugarri hotz eta gris, gizonak Yukoneko bide nagusitik saihestu eta ibai hegi erpinean gora egin zuenean...»
txartaka	«Hantxe zegoen sua, txartaka eta txinpartaka eta bizi-aldarrika gar dantzari bakoitzarekin.»
eguargi	« Eguargia hotz eta gris urratu zuen, izugarri hotz eta gris, gizonak Yukoneko bide nagusitik saihestu eta ibai hegi erpinean gora egin zuenean...»
parada	«Opilari mokadu bat kentzeko paradarik ere ez zuen izan. Hatz joka jardun eta atzera jantzi zituen eta beste eskua erantzi, jateko asmoarekin.»
dizdizka	«...zeru hotzaren barnean jauzi eta dantza eta dizdizka ari ziren izarren azpian.»
gutiziatu	«...bere buruaren onuragatik gutiziatzen zuen sutondora itzultzea. Baina gizonak arriztuaren eta zartailuaren hotsarekin hitz egin zion...»
saihestu	«Eguargia hotz eta gris urratu zuen, izugarri hotz eta gris, gizonak Yukoneko bide nagusitik saihestu eta ibai hegi erpinean gora egin zuenean...»
bizi-aldarrika	«Hantxe zegoen sua, txartaka eta txinpartaka eta bizi-aldarrika gar dantzari bakoitzarekin.»
kiribildu	«...buztana aurreko hanken gainean kiribildu eta gizonaren aurrean eseri zen, buruz buru, harrigarriro lehiatsu eta arretatsu.»
bidezidor	«Izei lodien artetik barrendu zen. Bidezidorra lauso zegoen.»
atzera	«Opilari mokadu bat kentzeko paradarik ere ez zuen izan. Hatz joka jardun eta atzera jantzi zituen eta beste eskua erantzi, jateko asmoarekin.»
damu mina	«Etsi zuen masailak izoztuta zeuzkala; hori bazekien, eta damu mina zuen sudur estalgarri bat apailatu ez izana...»
izu laborri	«Horrek izu laborria sortu zion, eta bira emanda korrikari ekin zion erreka arroan gora...»